
ABIZENAK

ARZELUZ: Batzuk "arze" artea dala diño, beste batzuk, oster, "artza". Eta "-luz" toki-atzizkia. Orduan, "arteak edo artzak dagozan tokia". Beste batzuk "artza" arriarte dala diño eta "-luz" luzea, orduan "arritza luzea".

Gipuzkoan dago geien zabaldua. (Ataun 1659)

ARDANTZA: "Ardan" edo ardau bat da eta —tza azkenenako ugaritasuna adierazten dau. Ori orrelan izanik, ardau asko artzen dan lekua litzake, baiña beste batzuk "ardan" basarana dala diño.

Abizena Elorriotik urtena izan leiteke, Gipuzkoan be ba-dago. (1776)

ARETXALDE: Aritz baten ondoan dagoan luna edo etxea.

Abizen lez Bizkaian geien. (1674)

AREJITA: Elorriori sortua da eta Gipuzkoara be igaro da. Gernikan be aurkitzen dogu. (Elgoibar-1752)

Jatorria aretxean ei dauko, eta azkenean "-eta", ugartasuna agertzeko.

ARENAZA: Batzuk "aran"etik datorrela diño, beste batzuk "arena"tik. Azkeneko "-tza" ugaritasuna da.

Bizkaian eta Gipuzkoan agertzen da geien. (Valladolid-1764)

ARIZPE: Aritzaren azpian dagon tokia edo etxea da. (Eibar-1575)

Abizena Bizkaian eta Gipuzkoan ugari.

ARIZTEGI: Aritz asko dagon tokia esan nai dau eta abizen lez zabal dabil batez be Gipuzkoan. (Onate-1716)

ARIZMENDI: Aritzak dagozen mendia, itzak argi diñoan lez eta abizen lez be zabala da Gipuzkoa osoan eta markinaldean. (Donosti-1566)

ARIZNABARRETA: Azkenengo "-eta" asko dagon tokia esan nai dau. "Nabar" izan leiteke alkarren ondoan dagozenak eta margoa argia, eta danaren aurrean aritza: Aritz asko eta batuak dagozen tokia.

Gipuzkoan geien, baina Bilbaon be bai. (Soraluce-1654)

ARMENDARIZ: Naparroan eta Gipuzkoan dago abizen au geien, baiña Bizkaian be ba-dagoz, esaterako Elorriori, Ubidean.

Batzuren ustez arri-mendiko aritza litzake. Beste batzuk bedar sikua aitatzen dabe, eta nik latinetik artutako "armentarius" ete dan esango neuke, abere-zaiña litzake. (Legorreta-1664)

ARMENTIA: Guztiok ezagutzen dogu Gasteiz-ondoko Prudentzio deunaren jaioterria. Abizena zabaldu egin da eta Kordoban be ba-dago. (Valladolid-1584).

Arri-mendia izan daiteke, baiña ba-diño bedarragaz be zer-ikusia daua.

ARROZTEGI: Abizena Bermeo-aldean egoan eta gero Gipuzkoara be zabaldu da.

Arotzaren etxea esan gura da, etxea edo lan-tokia. Lopez Mendizabal'ek danean sartu nai izaten dauz landarak eta emen be bai: orosti edo gorostiak dagozan tokia dala diño. (1537)

ARSUAGA: "Artsu" arri asko eta "-aga" azken mugatu ta sendotua da.

Gipuzkoan geien. (Urretxua-1348)

ARTABE: Artearen azpian dagoana esan nai dau, baiña "-be" ugaritasuna esan nai daua be ba-diño.

Dimatik urtena da abizena. (Tolosa-1769)

ARTARAZ: Arratian ugari dago abizen au eta lenengo zatia artea dala dirudi, beste zati biak -ar- eta —az zer diran ez dago argi.

ALTAZUBIAGA: Arteakaz egindako zubia gogoratzen dau eta azkeneko "-aga" mugatzaillea sendotzeko da.

Leniz'ko ibarrean eta Gipuzkoa osoan dago, Bizkaian be bai. (Arrasate-1391)

ARTEAGA: Gautegiz errian amargarren gizaldian agertzen da baiña gero Euskalerrin osora zabaltzen da. (Elorrio-1570)

Arte dagon lekua esan gura dau.

ARTETXE: Beste etxe batzuren artean dagoan etxea ei da baiña Lopez Mendizabalek Arte zugatzagaz alkatzen dau. Ez diño arte-ondoko etxea danik, "etxe" ugari ei da. (Azpeitia-1648)